

Kontratuen erregistroa 2016an

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2016an 284.497 pertsona kontratatu dira, joan den urtean baino 11.681 gehiago. 2016an kontratatutako pertsona desberdinen urtearteko hazkundera ez da 2015ekoa bezain handia izan (+24.642); hau da, 2015arekin alderatuta moteldu egin da.

• S E X U A

2016an 149.943 gizon eta 134.554 emakume kontratatu dira. Kontratutako gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan da ostera. Krisi-garaian kolpatuak izan ziren jarduera maskulinizatu batzuk suspertu egin dira, eta horrek azal lezake kontratazioan gizonen alde izan den abantaila txiki hori. Edonola ere, aurreko urtearekin alderatuta, sexuaren arabera emakumeen kontratazioa gizonena baino gehixeago hazi da (+5.715 eta +5.966, hurrenez hurren).

• A D I N A

Kontratutako pertsonen batez besteko adina 36,20 da, eta altuxeagoa da gizonena (36,29) emakumeena baino (36,10). Kontratutako langile gazteenak, batez beste, lanbide teknikotakoak –goi-mailakoak nahiz laguntzakoak– eta zerbitzuen arlokoak dira; horien batez besteko adina 35 urtetik beherakoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza-lanetan kontratatutakoak dira; batez beste 40 urtetik gorakoak dira. Lanaldi partzialean kontratatutako pertsonak gainerakoak baino gazteagoak dira: horien batez besteko adina 35,42 urte da; 34,58 gizonena eta 35,87 urte emakumeena. Kontratu mugagabeaz kontratatutako multzoa aldi baterako kontratuaz kontratatutakoa baino zaharxeagoa da (37,21 urte eta 35,96 urte, hurrenez hurren).

• J A T O R R I A

2016an kontratatutako pertsonen % 13,8k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehuneko bera da hori. Kontratutako pertsona atzerritarren % 34,5ek Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 16,2k Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde batekoa, % 14,2k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 14,1ek Europako Erkidegoko herrialde batekoa eta % 10,1ek Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa. Pertsona atzerritarrak bertakoak baino apur bat gazteagoak dira (36,02 eta 36,23 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrikako iparraldetik eta Latinoamerikatik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,56 eta 35,61 urte, hurrenez hurren), eta Europako Erkidegotik heldutakoak zaharrenak (36,93 urte). Azken urtean, kontratatutako atzerritarren artean kopurua gehien hazi direnak hazkunde handiena Saharaz hegoaldeko Afrikatik heldutakoak dira, eta gutxien, berriz, Latinoamerikatik heldutakoak.

• P R E S T A K U N T Z A - M A I L A

Kontratutako pertsonen % 43,7k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorezko hezkuntza amaitu du–, % 21,2k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 16,7k lanbide-heziketakoak, eta gainerako % 17,5ak unibertsitate-ikasketak. Hala urteko erreferentzian nola hilekoan gehien hazi den prestakuntza-profila oinarrizko ikasketak dituenarena da. Prestakuntza-maila apaleko pertsonen lan-egonkortasun txikiagoa izan ohi dute, eta, ondorioz, aktibitate handiagoa eragiten dute kontratuen erregistroan.

Kontratuen erregistroa 2016an

KONTRATUEN KOPURUAK

2016an 926.599 kontratazio izan dira EAEn, eta horietatik 65.530 (% 7,1) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabea izan duten gizonen ehunekoa (% 7,2) emakumeena baino handixeagoa da (% 7,0). Kontratazioa % 6,8 hazi da aurreko urtearekiko.

• JARDUERA EKONOMIKOA

2016an gehien hazi diren jarduera ekonomikoak honako hauek izan dira: ostalaritzakoak (15.605), administraziokoak (11.936) eta osasun-arlokoak (9.632). Azken urte honetan gehien jaisi direnetakoak informazioaren eta komunikazioaren arlokoak (-887) eta higiezinaren arlokoak (-510) izan dira.

• LANBIDEA

Azken urtean kontratu gehien eragin dituzten lanbide-profilak izan dira, lehenik, kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (% 31,9) eta, bigarrenik, kalifikatu gabeko lanpostuak (% 31,6). Bestalde, kontratazioa gehien hazi den lanbide-profilak hauek izan dira: zerbitzuetako kalifikatu gabeko langileak (23.220), kalifikatu gabeko lanpostuak (22.948), zientzia-arloko teknikariak eta profesionalak (5.188), administrazioko langileak (4.939), industriako langile kalifikatuak (2.291) eta teknikariak eta laguntza emateko profesionalak (2.108). Sinatutako kontratuen kopuruan behera egin duen lanbide-profil bakarra instalazio eta makinetako operadoreena izan da (-1.601).

• KONTRATAZIO-MOTA

Kontratuen % 7,1 mugagabea izan da; gizonen % 7,2k eta emakumeen % 7,0k izan dute kontratu-mota hori. Gizonen ehunekoa handiagoa bada, 2015ean ez zen horrelakorik izan, orduan emakumeen ehuneko metatua gizonena baino handixeagoa izan baitzen (% 7 eta % 6,8, hurrenez hurren). Esan ohi denaren kontra, kontratu mugagabeen kopurua ez da txikia, urtean zehar horrelako 65.530 kontratu sinatu baitira (azken urtean 5.493 gehiago izan dira). Arazoa, itxura batean, kontratu mugagabe horien egonkortasun-eza da; izan ere, horiek benetan egonkorrak balira, 4 urtean aldi baterako kontratua duten 200.000 pertsona ingururen kontratuzko harremanak bermatzea lortuko litzateke, eta hori ez da gertatzen.

2016an sinatutako 5 kontratutik 2 baino gehixeago (% 40,1) lanaldi partzialekoak dira; erdiak baino gehiago emakumeetan (% 53,1) eta 4tik 1 baino gehiago gizonetan (% 26,8). Kontratazio-mota horren arazo handiena da kontratu gehienak ez direla borondatezkoak, eta hori kontratuzko harremanaren kalitate eskasaren adierazgarri da. Kontratu mugagabeen % 36,3 lanaldi partzialekoa da.

Lanaldi partzialeko kontratuen ehuneko handienak ageri dituzten jarduera ekonomikoak honako hauek dira: ostalaritza (% 68,4), hezkuntza (% 62,8), etxeetako jarduerak (% 59,8), merkataritza (% 54,8) eta beste zerbitzu batzuk (% 52,6). Lanbide-profilei dagokionez, lanaldi partzialeko kontratazioen ehuneko handiena duena zerbitzuetako langileena da (% 60,4), eta txikiena, berriz, lehen sektoreko langileena (% 4,8), manufaktura-industrietako langile kalifikatuena (% 10,3) eta instalazio eta makinetako operadoreena (% 13,5).

• JATORRIA


2016ko kontratuen % 10,13 pertsona atzerritarrek sinatu dute; ehuneko hori joan den urtekoa baino handiagoa da (% 9,78). Atzerritik heldutako pertsonak sinatutako kontratuetan, pertsona

Kontratuen erregistroa 2016an

horien jatorri nagusia Latinoamerika da (% 34,64), eta, ondoren, Afrikako iparraldea (% 15,17) eta Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde bat (% 14,75).


Personas distintas contratadas por procedencia (%)

■ Pers. Autóctona ■ Pers. Extranjera




Total de contratos por procedencia (%)

■ Pers. Autóctona ■ Pers. Extranjera



Zona de procedencia (%)



Grafiko hauek erakusten dute pertsona atzerritarren ehunekoa pertsona horien kontratuen guztizkoa baino handiagoa dela, eta horrek aditzera ematen du atzerritik heldutako pertsonen errotazioa bertan jaiotakoena baino handiagoa dela. Horren oinarrian egon litekeen faktore bat da pertsona atzerritarrek kalifikazio apalagoko eta lan-baldintza kaskarragoko lanpostuak izan ohi dituztela; enpresari batzuek gehiago fidelizatzen dituzten langile atzerritarrek, lan-baldintza okerrenak hobeto onartzen dituztelako. Beste faktore bat izan liteke pertsona atzerritarrek, kalifikazio apalagoa izanik, lan kaskarragoekin etsitzen dutela eta sarritan ez dituztela lan-aukera hobeak bilatzen.

• PRESTAKUNTZA - MAILA

Prestakuntza-mailaren arabera banandutako datuen analisiak erakusten du kontratu gehien-gehienak oinarrizko prestakuntza-maila duten pertsonen sinatu dituztela (% 44,5). Batxilergoko ikasketak egin dituzten pertsonen % 21,5 sinatu dute –5 kontratutik 1 baino gehiago–, lanbide-heziketako ikasketak egin dituztenek % 19,7, eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenek % 13,8.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoka, sinatutako kontratuen lanpostuen % 18,5 Araban dago, % 52,5 Bizkaian eta gainerako % 29a Gipuzkoan. Arabak bere biztanle-kopuruari erreparatuta espero litekeena baino kontratazio-ehuneko handiagoa du, eta Gipuzkoak txikiagoa; Bizkaian, kontratazio-ehuneko espero litekeenaren oso antzekoa da.

Kontratuen erregistroa 2016an

Aurten, kontratazioek gora egin dute hiru lurralde historikoetan: Araban % 5,5 (9.005 kontratu gehiago), Gipuzkoan % 6 (15.134 kontratu gehiago) eta Bizkaian % 5,5 (35.205 kontratu gehiago).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2016an sinatutako 6 kontratutik bat baino gehixeago (% 17,8) aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, lau kontratutik ia 1 (% 25) horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 10,7 bakarrik egin du ABLE batek.


Lurralde historikoen artean alde handiak daude: kontratazio-mota hori gehien erabili den lurraldea Araba izan da (% 22,8); Bizkaiko eta Gipuzkoako ehunekoak nabarmen apalagoak dira (% 18,3 eta % 13,7, hurrenez hurren).

ABLEen bitartez kontratu gehien egin diren lanbide-taldeak honako hauek dira: kalifikaziorik gabeko langileak (% 58), kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (% 13,5) eta instalazio eta makinetako operadoreak (% 12,3).

Kalifikaziorik gabeko kontratuen ia herenak (% 32,6) ABLE baten bitartez egiten dira. ABLEen bitartez kontratu-kopuru dezente egiten diren beste jarduera bat instalazio eta makinetako operadoreena da (% 31,7).

Aurreko urtearekin alderatura, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 7,3 hazi dira.

Contratos por ETT



Kontratuen erregistroa 2016an

		2016	2015	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
Mota	Mugagabea	65.530	60.037	5.493	% 9,15
	Aldi baterakoa	861.069	807.218	53.851	% 6,67
	Guztira	926.599	867.255	59.344	% 6,84
	Mugagabeen %	% 7,1	% 6,9	0,2	
Sexua	Gizona	458.368	433.437	24.931	% 5,75
	Emakumea	468.231	433.818	34.413	% 7,93
	Guztira	926.599	867.255	59.344	% 6,84
	Emakumeen %	% 50,5	% 50,0	0,5	
Mugagabea	Gizona	32.947	29.627	3.320	% 11,21
	Emakumea	32.583	30.410	2.173	% 7,15
	Guztira	65.530	60.037	5.493	% 9,15
Aldi baterakoa	Gizona	425.421	403.810	21.611	% 5,35
	Emakumea	435.648	403.408	32.240	% 7,99
	Guztira	861.069	807.218	53.851	% 6,67
Guztira	Gizona	458.368	433.437	24.931	% 5,75
	Emakumea	468.231	433.818	34.413	% 7,93
	Guztira	926.599	867.255	59.344	% 6,84
Mugagabeen tasa	Gizona	% 7,2	% 6,8	0,4	
	Emakumea	% 7,0	% 7,0	0,0	
	Guztira	% 7,1	% 6,9	0,2	
Lanaldi partziala	Mugagabea	23.780	21.827	1.953	% 8,95
	Aldi baterakoa	347.609	320.198	27.411	% 8,56
	Beste batzuk	555.210	525.230	29.980	% 5,71
	Guztira	926.599	867.255	59.344	% 6,84
	LP tasa	% 40,1	% 39,4	0,7	
Lanaldi partziala	Gizona	122.785	114.467	8.318	% 7,27
	Emakumea	248.604	227.558	21.046	% 9,25
	Guztira	371.389	342.025	29.364	% 8,59
	Gizonen tasa	% 26,8	% 26,4	0,4	
	Emakumeen tasa	% 53,1	% 52,5	0,6	
	Tasa guztira	% 40,1	% 39,4	0,7	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	8.284	9.372	-1.088	-% 11,61
	Beste batzuk	918.315	857.883	60.432	% 7,04
	Guztira	926.599	867.255	59.344	% 6,84
	Prestakuntzakoak (%)	% 0,9	% 1,1	-0,2	
L. historikoa	Araba	171.781	162.776	9.005	% 5,53
	Bizkaia	486.271	451.066	35.205	% 7,80
	Gipuzkoa	268.547	253.413	15.134	% 5,97
	EAE	926.599	867.255	59.344	% 6,84
Gizonak	Lehen sektorea	16.899	16.300	599	% 3,67
	Erauzketa-industriak	73	62	11	% 17,74
	Manufaktura-industriak	112.328	105.608	6.720	% 6,36
	Energia	86	66	20	% 30,30
	Ura	4.521	4.687	-166	-% 3,54
	Eraikuntza	32.217	32.704	-487	-% 1,49
	Merkataritza	41.013	39.002	2.011	% 5,16
	Garraioa	48.907	49.123	-216	-% 0,44
	Ostalaritza	56.397	49.961	6.436	% 12,88
	Informazioa eta komunikazioa	12.348	12.719	-371	-% 2,92
	Finantzak eta aseguruak	1.605	1.689	-84	-% 4,97
	Higiezin sektorea	468	974	-506	-% 51,95
	Zientifikoak eta teknikoak	12.622	13.179	-557	-% 4,23
	Administraziokoak	48.926	44.042	4.884	% 11,09
	Administrazio publikoa	5.221	3.928	1.293	% 32,92
	Hezkuntza	11.671	11.012	659	% 5,98
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	22.409	20.269	2.140	% 10,56
	Arte- eta jolas-jarduerak	21.852	19.257	2.595	% 13,48

Kontratuen erregistroa 2016an

		2016	2015	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
	Beste zerbitzu batzuk	7.347	7.300	47	% 0,64
	Etxeetako jarduerak	1.414	1.547	-133	-% 8,60
	Lurraldez kanpoko erakundeak	44	8	36	% 450,00
	Guztira	458.368	433.437	24.931	% 5,75
Emakumeak	Lehen sektorea	1.664	1.590	74	% 4,65
	Erauzketa-industriak	27	28	-1	-% 3,57
	Manufaktura-industriak	30.160	29.138	1.022	% 3,51
	Energia	73	53	20	% 37,74
	Ura	444	503	-59	-% 11,73
	Eraikuntza	1.852	1.730	122	% 7,05
	Merkataritza	63.082	59.567	3.515	% 5,90
	Garraioa	10.680	9.555	1.125	% 11,77
	Ostalaritza	90.997	81.828	9.169	% 11,21
	Informazioa eta komunikazioa	8.773	9.289	-516	-% 5,55
	Finantzak eta aseguruak	3.737	3.892	-155	-% 3,98
	Higiezin sektorea	601	605	-4	-% 0,66
	Zientifikoak eta teknikoak	17.742	17.230	512	% 2,97
	Administraziokoak	68.620	61.568	7.052	% 11,45
	Administrazio publikoa	7.226	5.931	1.295	% 21,83
	Hezkuntza	29.439	27.472	1.967	% 7,16
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	90.277	82.785	7.492	% 9,05
	Arte- eta jolas-jarduerak	15.088	14.284	804	% 5,63
	Beste zerbitzu batzuk	12.363	11.748	615	% 5,23
	Etxeetako jarduerak	15.335	14.992	343	% 2,29
	Lurraldez kanpoko erakundeak	51	30	21	% 70,00
Guztira	468.231	433.818	34.413	% 7,93	
Guztira	Lehen sektorea	18.563	17.890	673	% 3,76
	Erauzketa-industriak	100	90	10	% 11,11
	Manufaktura-industriak	142.488	134.746	7.742	% 5,75
	Energia	159	119	40	% 33,61
	Ura	4.965	5.190	-225	-% 4,34
	Eraikuntza	34.069	34.434	-365	-% 1,06
	Merkataritza	104.095	98.569	5.526	% 5,61
	Garraioa	59.587	58.678	909	% 1,55
	Ostalaritza	147.394	131.789	15.605	% 11,84
	Informazioa eta komunikazioa	21.121	22.008	-887	-% 4,03
	Finantzak eta aseguruak	5.342	5.581	-239	-% 4,28
	Higiezin sektorea	1.069	1.579	-510	-% 32,30
	Zientifikoak eta teknikoak	30.364	30.409	-45	-% 0,15
	Administraziokoak	117.546	105.610	11.936	% 11,30
	Administrazio publikoa	12.447	9.859	2.588	% 26,25
	Hezkuntza	41.110	38.484	2.626	% 6,82
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	112.686	103.054	9.632	% 9,35
	Arte- eta jolas-jarduerak	36.940	33.541	3.399	% 10,13
	Beste zerbitzu batzuk	19.710	19.048	662	% 3,48
	Etxeetako jarduerak	16.749	16.539	210	% 1,27
	Lurraldez kanpoko erakundeak	95	38	57	% 150,00
Guztira	926.599	867.255	59.344	% 6,84	
Gizonak	<>	41	45	-4	-% 8,89
	Zuzendaritza	1.102	1.133	-31	-% 2,74
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	30.018	28.198	1.820	% 6,45
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	37.087	36.303	784	% 2,16
	Administrazioko langileak	17.472	15.078	2.394	% 15,88
	Zerbitzuetako kalifikatuak	89.948	82.042	7.906	% 9,64
	Oinarrizko kalifikatuak	3.579	3.321	258	% 7,77
Industriako kalifikatuak	55.402	53.673	1.729	% 3,22	

Kontratuen erregistroa 2016an

		2016	2015	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
	Operadoreak	54.733	53.944	789	% 1,46
	Kalifikatu gabeak	168.986	159.700	9.286	% 5,81
	Guztira	458.368	433.437	24.931	% 5,75
Emakumeak	<>	62	43	19	% 44,19
	Zuzendaritza	565	517	48	% 9,28
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	53.737	50.369	3.368	% 6,69
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	34.104	32.780	1.324	% 4,04
	Administrazioko langileak	35.872	33.327	2.545	% 7,64
	Zerbitzuetako kalifikatuak	205.161	189.847	15.314	% 8,07
	Oinarrizko kalifikatuak	227	266	-39	-% 14,66
	Industriako kalifikatuak	5.717	5.155	562	% 10,90
	Operadoreak	9.106	11.496	-2.390	-% 20,79
	Kalifikatu gabeak	123.680	110.018	13.662	% 12,42
	Guztira	468.231	433.818	34.413	% 7,93
	Guztira	<>	103	88	15
Zuzendaritza		1.667	1.650	17	% 1,03
Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak		83.755	78.567	5.188	% 6,60
Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak		71.191	69.083	2.108	% 3,05
Administrazioko langileak		53.344	48.405	4.939	% 10,20
Zerbitzuetako kalifikatuak		295.109	271.889	23.220	% 8,54
Oinarrizko kalifikatuak		3.806	3.587	219	% 6,11
Industriako kalifikatuak		61.119	58.828	2.291	% 3,89
Operadoreak		63.839	65.440	-1.601	-% 2,45
Kalifikatu gabeak		292.666	269.718	22.948	% 8,51
Guztira		926.599	867.255	59.344	% 6,84
ABLE		Gizonak	114.779	108.182	6.597
	Emakumeak	50.004	45.378	4.626	% 10,19
	Guztira	164.783	153.560	11.223	% 7,31
Pertsona-kopurua	Gizonak	149.943	144.228	5.715	% 3,96
	Emakumeak	134.554	128.588	5.966	% 4,64
	Guztira	284.497	272.816	11.681	% 4,28
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	124.350	118.605	5.745	% 4,84
	Batxilergoa	60.354	57.747	2.607	% 4,51
	LHko ikasketak	47.382	46.844	538	% 1,15
	Unibertsitate-ikasketak	49.804	46.672	3.132	% 6,71
	Atzerritarra	39.309	37.559	1.750	% 4,66
	Bertakoa	245.188	235.257	9.931	% 4,22
	<>	51	45	6	% 13,33
	Aberrigabea	37	22	15	% 68,18
	Europako Erkidegoa	5.542	5.455	87	% 1,59
	Erkidegokoa ez den Europa	6.352	5.962	390	% 6,54
	Txina	1.255	1.313	-58	-% 4,42
	Japonia	20	16	4	% 25,00
	Asiako beste herrialde bat	2.805	2.653	152	% 5,73
	Saharaz hegoaldeko Afrika	3.985	3.416	569	% 16,66
	Afrikako iparralde	5.565	5.036	529	% 10,50
	Ipar Amerika	117	109	8	% 7,34
	Erdialdeko eta Hego Amerika	13.550	13.504	46	% 0,34
	Ozeania	30	28	2	% 7,14
	Atzerritarrek guztira	39.309	37.559	1.750	% 4,66